

GAIA:
" RoboLab: multitarea eta jauziak "

Dokumentuaren kodea:
EK-ROB101-TEK-DBH
Denbora: klase osoa

Gaiaren helburua(k):

- Honelako ariketak ebazteko gai izan, ondo arrazoituz:
 - emanik, askatu
 - emanik, askatu

Aurretik jakin beharreko kontzeptuak

- RoboLab-eko elementuak programan sartzen


Proposatutako baliabideak:

- " RoboLab: Multitarea eta Jauziak" dokumentua (<http://www.zarautz.com/rafamunoa> →Teknologia→Robotika)
- "RoboLab 2.0" softwarea (Lego)

Multitarea

Zenbait kasutan, robot batek bi ekintza batera egin behar ditu: motorra martxan jarri eta aldi berean argiren bat piztu...

Hori lortzeko, multitarea elementua daukagu, beheko irudian agertzen den bezala:



Elementu honetan, programaren haria sartzen da eta bi hari ateratzen dira, bakoitzak bere bidea jarraituko duena, era independentean.

1. Proiektua

Multitarea erabiliz, honako proiektua burutu:

Geldirik dagoen kotxe bati pultsadorea sakatzean (sarrera=1), motorrak martxan jartzen dira (irteera=A) eta beste pultsadore bat (sarrera=2) sakatzean argi intermitentea pizten da (irteera=B).

Pultsadoreak berriz sakatzen badira, motorra (1-ekoa sakatzean) edota argiak (2-koa sakatzean) gelditu egiten dira.

Jauziak

Portaeraren bat behin eta berriro errepikatu nahi bada, jauzien bidez lor daiteke hori. Hona hemen elementu horiek:




Elementu horien izenak hauek dira: "Aterrizar" eta "Saltar" eta lehenengo elementuak jauziaren amaiera adierazten du eta bigarrenak jauziaren jatorria.

2. Proiektua

Jauziak erabiliz, honako proiektua burutu:

Geldirik dagoen kotxe bati pultsadorea sakatzean (sarrera=1) motorrak martxan hasten dira aurreruntz (irteera=A) eta berriro sakatzean gelditu egiten da.

Portaera hori behin eta berriro ematen da.



Multitarea elementua hemen aurkitzen da: Registro de datos y motores → Estructuras



Jauziak hemen aurkitzen dira: Registro de datos y motores → Estructuras → Saltos

3. Proiektua

Jauziak eta multitarea erabiliz, honako proiektua burutu:

Geldirik dagoen kotxe bati pultsadorea sakatzean (sarrera=1) lehenik argi intermitentea (irteera=B) piztu (abisu moduan) eta handik bost segundura motorra aurreraka martxan jarri (irteera=A).

Beste pultsadorea sakatzean (sarrera=2) motorra gelditu eta "3" sarrerako pultsadorea sakatzean argi intermitenteak itzali.

Portaera hori behin eta berriro ematen da.